GIZARTEA - URREZKO SAGARDOA

# Euskal Herriko sagardoa, munduko onenen artean

EITB.EUS 2016/05/09

**Astigarragako Bereziartua sagardotegiak Michiganen (AEB) egiten den Laku Handietako Nazioarteko Sagardo lehiaketan urrezko, zilarrezko eta brontzezko hiru domina lortu ditu.**



0 Tweet Iruzkinak

Euskal Herriko sagardoak **“urrezko posizioa”** lortu du nazioartean. Astigarragako **Bereziartua sagardotegiak Michiganen (AEB) egiten den Laku Handietako Nazioarteko Sagardo Lehiaketan** aurkeztutako hiru sagardok **urrezko, zilarrezko eta brontzezko hiru domina** lortu dituzte. Lehiaketa hau mundu mailan egiten den sagardo lehiaketa garrantzitsuena da.

Gipuzkoako sagardotegiarentzat emaitza ezin hobea izan da; urrezko domina Basque Country Cider sagardoarentzat, zilarrezko domina Gourmet edizioko sagardoarentzat eta brontzezko domina etxeko betiko sagardoarentzat.

Duela hamaika urtetik, Michigango lehiaketak hartzitutako sagarrezko eta udarezko edaririk onenak saritzen ditu. Lehiaketa honek mundu guztian daukan oihartzunagatik ekoizleen arteko **lehia izugarria** da.

Sagardoaren industria geroz eta handiagoa da munduan, eta lehiaketara aurkeztutako sagardo kopurua izan da horren adierazle. Aurton, 31 herrialdetako 282 ekoizleren 1.003 sagardo aurkeztu dira. Lehiaketaren historian, lehenengo aldiz gainditu da milaren muga.

Sagardo ekoizleek, zaleek, saltzaileek, kritikariek eta adituek osatu duten 90 epaileko epaimahai batek aukeratu ditu sagardo onenak. Aurtengo edizioan, urrezko 73 domina, zilarrezko 305 domina eta brontzezko 386 domina eman dituzte.

PUBLIZITATEA

ORAIN ALBISTE



ALBISTEAK - LAN ISTRIPUA

**Bi lagun hil eta bost zauritu dira Baionan izandako bi eztandatan**

Erlazionatutako edukiak:

- Bi langile hil eta hiru zauritu dira leherketa batean, Baionan



ALBISTEAK - AUZITEGI NAZIONALA

**Odol-deliturik egin ez duten presoen gaineko erabakia, atzeratuta**

KIROLA - GIROA 2016

**ZUZENEAN 6. etapa, Ponte-Roccaraso, 165 km**

ALBISTEAK - NAFARROA

**Mikel Zabalzaren mural bat kentzeko eskatu du Espainiako Gobernuak**

ALBISTEAK - 'IMPEACHMENT'A

**Rousseff Brasilgo Presidentetzatik kentzea erabaki du Senatuak**

ALBISTEAK - IRUZURRA HIRIKO PROIEKTUAN

**Fiskaltzak gaitasungabetzea eskatu du Hirikoren kudeatzaileentzat**

ALBISTEAK - INDARKERIA MATXISTA

**Gizon batek emaztea hil du Tenerifen**

KIROLA - LAUKO FINALA 2016

**Baskoniako mila zale inguru izango dira Berlinen**

KULTURA - DONOSTIAKO UDALA

**Benito Lertxundiri emango diote 2016ko Adarra Saria**

Albiste gehiago

**HAU ZURE INTERESEKOA BADA, BALITEKE BESTE GAI HAUEK ERE IZATEA:**

Albisteak Gipuzkoa   Gizartea bideoak   Astigarraga   Berriak euskaraz

Iruzkinak

Publizitatea

# BISITATUENA

ALBISTEAK | KIROLAK | TELEBISTA | IRRATIA

1. Emakumeentzako korrikaldiak antolatzen hasi da Mungiako Udala
2. Ika-mika, Barkosen Gobernuak Aroztegiako proiektua babestu duelako
3. 1.284 planeta aurkitu dituzte teknika berri batekin
4. Gaixoen datuak gordetzeko sistema iraultzailea abian
5. Langile bat zauritu da Oñatin, baso-lanak egiten ari zela
6. Sute batek bost motor eta auto bat kiskali ditu Donostian
7. Hondarribiko aireportutik kanpoko lur hartzea simulatu dute
8. Larrialdiko lurreratze baten simulazioa, drone batetik grabatuta
9. WhatsApp, Windows eta Mac ordenagailuetarako erabilgarri
10. Gaur ere, lanuzteak Bizkaibusen

## Hauteskunde orokorrak 2015



Kontsultatu albisteak, kronikak, bideoak eta audioak abenduaren 20ko hauteskundeei buruz.



NAHIERAN

Ikusi berriro ETBko albistegiak

PUBLIZITATEA

PUBLIZITATEA

## Bisitatuena

BIDEOAK | AUDIOAK



**Vídeo íntegro de la despedida de Carlos Gurpegui en Lezama | Athletic de Bilbao**



**Vídeo: Simulacro de aterrizaje forzoso en el aeropuerto de Hondarribia | Sociedad**



**Aplicación en Osakidetza para gestionar los datos de los pacientes | Sociedad**



**Kilometroak 2016 festaren "Demasa" kantuaren bideoklipa | Bideoklipak**



**Vídeo: La vida provisional de un vecino tras el derrumbe de Ondarroa | Más de tres millones**



**Vídeo: Kontxi y sus tres hijos sobreviven con 500 euros al mes | Más de tres millones**

1 2

© EITB - 2016 - **Lege Oharra**



CONFIANZA ONLINE